

OHIKO GALDERAK

ZER DA HERRITARREN BATZAR BAT?

Prozesu aitzindaria eta berritzailea da, eta Tolosako Udalak sustatzen du herritarrak gai publiko garrantzitsuen eztabaidan inplikatzeko.

ZER EGITEN DA HERRITARREN BATZAR BATEAN?

Herritarren Batzarrean zera egiten da: herritarren askotariko profilen adierazgarri den pertsona-talde batek informazioa aztertzen du, adostasuna bilatzeko deliberatu eta agintari publikoei zuzendutako gomendio zehatzak garatzen ditu. Hiru ezaugarri nagusi ditu:

- 1. Deliberazioa:** informazio zehatza, garrantzitsua eta askotarikoa eskura izatea eskatzen du. Herritarren Batzarreko sustatzaileek informazio hori jartzen dute herritarren eskura eta herritarrak beraiek dira zein informazio behar duten identifikatzen dutenak.
- 2. Ordezkatzeko gaitasuna:** zozketa bidez aukeratzeko da herritar talde bat, taldea oro har komunitatearen profil demografikoari egokitzen zaiola bermatzeko.
- 3. Eragina/ inpaktua:** Tolosako Udala batzarrean parte hartuko duten herritarrek egindako gomendioei erantzutera eta horiei jarraipena emateko konpromisoa hartzen du.

ZERGATIK SUSTATU DA HERRITARREN BATZAR HAU?

Parez pare ditugun erronkak konplexuak dira eta horiei irtenbideak aurkitzeko askotariko pertsonak elkarlanean aritu beharko gara. Tolosako gizartean bizi ditugun erronka horien artean ongizate eta osasun emozionala da etengabe goranzko joeran ikusten ari garena; eta ez gara gai izaten ari horri aurre egiteko irtenbideak proposatzen. Horregatik proposatzen dugu herritarrak eta gaian adituek erronka aztertzea eta gomendioak proposatzea.

ZERTAZ ARI GARA OSASUN ETA ONGIZATE EMOZIONALAZ ARI GARENEAN?

Osasun mentalaren baitan ongizate emozionala, psikologikoa eta soziala daude. Honenbestez, guk sentitu, pentsatu, ekin eta harremantzen garen moduari eragiten dio.

Horrela, ongizate sozio-emozionalak gure gaitasunen jabe sentitzen laguntzen digu, erabakiak hartzerakoan, egunerokotasunean eraginkorki lan egiterakoan, bizitzaren tentsioei (estresa) aurre egiterakoan, eta komunitateari ekarpenak egiterakoan.

NORK BULTZATU DU HERRITARREN BATZAR HAU?

Prozesu honen sustatzaile nagusiak Tolosako Udala eta Arantzazulab dira. Eta bidelagun dugu Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea (ELGA/OCDE). Izan ere, prozesu berria eta berritzailea da, eta Tolosan egingo den prozesu honetako irakaspenak ongi jaso eta eredu honen zabalpenean laguntzeko eragile hauen lankidetzeta oso garrantzitsua da.

ZERGATIK IRITSI ZAIT NIRI ESKUTITZ HAU?

Tolosako Herritar guztiek ez dute eskutitza jaso. Udal errolda erabiliz zozketa egin da 16 urtetik gorako biztanle guztien artean eta aukeratutakoei gutuna bidali zaizue.

Izena emango duten guztien artean bigarren zozketa egingo da, eta horrela Tolosako ezaugarri soziodemografikoekin adierazgarria den lantaldea sortuko da: adina, generoa, bizilekua/auzoa eta ikasketak hartuko dira kontuan. Guztira, 32 herritarrez osatutako lantaldea izango da.

NOLA EGINGO DA BIGARREN ZOZKETA HORI?

Sortition Foundation irabazi-asmorik gabeko erakundeak egingo du bigarren zozketa, web orrian edo telefono bidez izena eman duzuen guztien artean. Bigarren zozketa hau datuak anonimizatuta egiten da, eta 32 kide titular eta 32 ordezkotako hautatuko dira. Zozketa honen emaitza izena eman duzuen guztiei jakinaraziko zaizue.

ZER ESKATZEN DU HERRITARREN BATZARREAN PARTE HARTZEAK?

Parte hartzeak aukera ematen du ongizate eta osasun emozionalaren egoera bertatik bertara ezagutzeko eta Batzarreko gainerako kideekin eztabaidatzeko. Zu izango zara protagonistetako bat, aditu talde baten aholkularitzarekin, Tolosan arazo horri aurre egiteko

moduari buruzko gomendioak landuko dituena. Horretarako, programatutako bileretara joan eta eztabaidan parte hartzeko erantzukizuna duzu.

Eskatzen den konpromisoa da bost larunbatetan antolatutako bilera guztietan parte hartzea, bileratik bilerara ez da aparteko lanik egin beharko.

Bilera guztietan parte hartzearen ondorioz, 444€ko ordainsari bat jasoko du herritar bakoitzak prozesuaren amaieran. Era berean, zure parte hartzeko baldintzak bermatuko dira; alegia, beharrezkoa denean itzulpen/interpretazio- edota zaintza- zerbitzua eta garraio laguntza eskainiko zaizu.

ZER EGIN BEHAR DUT HERRITARREN BATZARREAN PARTE HARTZEA ERABAKITZEN BADUT?

Herritar bezala duzun ikuspegia helaraztea izango da zure zeregin nagusia, zure egunerokoan ikusi eta bizi duzuna kontuan hartuz. Hiru fasetan egingo dugu lan:

1. Adituen informazioa jaso
2. Jasotako informazioaz hausnartu eta deliberatu
3. Tolosako Udalarentzat proposamen/gomendioak egin eta idatzi

ZER EGINGO DA EMAITZAREKIN?

Azken saioan, udal ordezkarietara aurkeztuko zaizkie herritarrek landutako proposamenak. Udal arduradunek ekarpen guztiak baloratu eta bideragarritasuna aztertu eta erantzuteko konpromisoa hartuko dute. Herritarrek egindako gomendioen artean inplementatuko direnak nola aurrera aterako diren aurkeztuko da, eta inplementatuko ez direnen arrazoiak azalduko dira.

PARTE HARTZERA DERRIGORTUA NAGO?

Ez da derrigorrezkoa parte hartzea, baina Tolosako Udaletik bereziki animatu nahi zaitugu Herritarren Batzarrean parte hartzera, herritar bakoitzak egiten duzuen ekarpena oso garrantzitsua baita. Halaber, erronka konplexu honi aurre egiteko guztion ikuspuntuak eta ekarpenak behar ditugu irtenbideak sortu ahal izateko.

EZ DUT GAIA EZAGUTZEN, ZEIN EKARPEN EGINGO DUT NIK?

Ez da gaia ezagutu behar, ezta aditua izan behar ere parte hartzeko, izan ere lehen bi saioetan beharrezko informazio guztia jasoko duzue, ondoren proposamenak egin ditzazuen.

ZEIN HIZKUNTZATAN EGINGO DA LAN?

Tolosako hizkuntza nagusiak Euskara eta Gaztelania dira, nahiz eta badakigun beste hainbat hizkuntza ere hitz egiten direla. Bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko araudia betetzen dela zainduko da, euskararen erabilera soziala sustatuz eta Herritarren Batzarrean parte hartzen duten pertsona guztien ulermena bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz. Bigarren zozketaren ondoren, eta partaidetza berrestearekin batera, Batzarreko kideen hizkuntza-ezagutzei buruzko informazioa jasoko da, eta euskara zein gaztelania ulertzen edo hitz egiten ez badituzu, zure behar espezifikoekin bat datorren itzulpen-sistema bat eskaintzen saiatuko gara.

NORK GAINBEGIRATUKO DU HERRITARREN BATZARRA?

Jarraipen-batzorde bat dago Herritarren Batzarra gainbegiratzeko. Jarraipen-batzordea talde sustatzaileetako kideek osatzen dute, hain zuzen ere: Tolosako udaleko alkatea eta alderdi politiko guztietako ordezkariak, Arantzazulab (erakunde sustatzailea), Prometea eta Aztiker (batzarren fazilitazioa eta beste lanaketa batzuk egingo dituzten erakundeak).

Halaber, egitasmoa behar bezala garatzen dela bermatzeko horrelako prozesuak garatzen esperientzia zabala duten bidelagunak ditugu: ELGA/OCDE eta Deliberativa elkarteak. Zehazki, deliberazioaren diseinua eta zozketa zibikoa Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak baliozkotutako metodologian oinarritzen da, eta bai beraiek bai Deliberativa elkarteak gainbegiratu du prozesua.

Edukien batzorde bat ere badago, informazioa sortzeaz arduratuko dena eta askotariko esperientziak eta ikuspegiak kontuan hartzen direla bermatuko duena. Dokumentuaren hasieran adierazi bezala, informazio gehiago kontsulta dezakezu web orrian:

partaidetza.tolosa.eus

Galdera gehiago badituzu, jar zaitetz gurekin harremanetan hemen agertzen diren kontakturako bideak baliatuta:

- **Email:** osasunemozionala@tolosa.eus
- **Telefonoz:** 688 76 84 58
- **Web orria:** partaidetza.tolosa.eus